

# 421 euroko diru-laguntza Baldintzak, kritikak eta frustrazioa

Gizarte-prestazioa joan den urtarrilaren 1etik agortua duten langabetuentzat laguntzak erabaki ditu Espainiako gobernua, baina horiek jasotzeko hainbat eskakizun edo baldintza bete behar dira. Saria jasotzeko eskubidea dutela uste dutenek lehenik baldintza horien berri izan behar dute, frustrazio gehiago izan nahi ez badute.

DANIEL UDALAITZ

GERO ETA LANGABETU gehiago eragiten dituen egoera sozioekonomiko larria dela eta, eta langabezian dauden milaka pertsonen prestazioak amaitzen ari zaizkienez, abuztu betean Espainiako gobernua egoera arintzeko zenbait neurri abian jartzea erabaki zuen. Laguntza-multzo hori, ofizialki, “Langabezia-babeserako eta txertatzeko programa” izenez bataiatu dute. Beste neurri batzuen artean, langabetuek sei hilabetetan 421 euroko saria jasotzean datzan laguntza berria nabarmentzen da; laguntza hori egoeraren eboluzioaren arabera luza liteke. Hala ere, erabaki honek langabetuak nahastu ditu, agian sariak jasotzeko bete behar diren baldintzak ez direlako behar bezala azaldu.

Nahasmendua sortu duen arrazoi nagusietakoa gehienek baldintzetako baten berri ez izatea izan da: laguntza berria langabezia-saria abuztuaren 1etik aurrera agortu zuten langabetuek eskuratu zezaketen soilik. Hor-taz, langabezia-saria lehenago galdu zutenek gogor kritikatu zuten neurria. Azkenean, Espainiako gobernua baldintza hori zuzendu eta data 2009ko urtarrilaren 1era atzeratu du. INEMeko lurralde-egoitzetan dagoe-



Zapaterok abuztuan eman zuen diru-laguntza honen berri. Ezkerreko orrialdean: ilarak Espainiako INEMeko ofizina batean.

**Langabetuen kritikek eraginda, urtarriletik langabezia saria agortu dutenek ere kobratu ahal izango dute Espainiako gobernua ematen duen 421 euroko diru-laguntza**

neko formularioak dituzte, laguntza berria jasotzeko eskubidea duela uste duen orok eskaera egin dezan. Espainiako gobernua baldintza betetzen duten guztiei informazio pertsonalizatua bidaltzeko asmoa du, Gobernuak berak adierazi zuenez. Urtarrilaren 1eko data ofizialtzen bada, Espainiako Estatu osoan 600.000 pertsona inguruk izango lukete laguntza berriak jasotzeko aukera, planak irauten duen bitartean.

## Autonomoek 1.383 euro bitarteko langabezia saria jaso ahal izango dute

Oraindik erabakirik hartu ez bada ere, Espainiako gobernuak joan den abuztuan lana galtzen duten autonomoei buruzko Lan Ministerioaren txosten zabala aztertu zuen. Orain txostena zabaldu behar da aurreproiektu bat osatzeko, ziur aski irailean egingo dena. Ondoren parlamentuan jarraituko du bidea, eta oso azkar egin behar luke 2010ean ofizialki gauzatzea nahi baldin bada. Krisia piztu zenetik 300.000 autonomok utzi dute beren jarduera Espainiako Estatuan, eta orain arte ez dute langabezia-prestazioa jasotzeko aukerarik izan.

### Hilero 8,3 euro

Txosten horren edukiaren arabera, lana galtzen duten autonomoek 583 eta 1.383 euro arteko laguntza jaso lezakete, sei hilabetetan gehienez ere. Prestazio hori lortu ahal izateko, autonomoek lan-istripuengatik eta lan-gaixotasunengatik koti-

zatu beharko dute. Mendeko autonomoek –diru-sarreraren %75 baino gehiago bezero bakarraren-gandik jasotzen dutenak– eta arrisku-sektoreetan lan egiten dutenek derrigorrez ordaintzen dute. Gainerako autonomoek ez dute zertan ordaindu eta eskubidea izateko kotizatu ala ez erabaki beharko dute. Hilero gutxienez 8,3 euro ordaindu beharko dituzte –gutxieneko oinarri erregulatuarenean %1–, dagoeneko lan-istripuengatik eta gaixotasunengatik ordaintzen duten kopuruaz gain, baina ordaindu beharreko kantitatea urtero eguneratuko da.

Autonomoen hainbat erakunde eta elkarte dagoeneko proposamena kritikatu dute, soilik sei hilabetera arteko prestazioak jasotzen dituelako eta autonomo baten jarduera eteteko finkatutako irizpideengatik. Ondorioz, Espainiako gobernuaren ekimenari alegazioak egingo dizkiotela adierazi dute.

### 2012ra arte luza liteke

Programa berriak sei hilabete iraungo du eta, exekutiboak hala erabakiz gero, luzatu ahal izango da, ekonomian eta enpleguaren egoeraren arabera. Espainiako gobernuak programa berritzeko konpromisoa hartu du langabezia-tasa %17tik gorakoa baldin bada. Baina konpromiso hori dekretuaren hitzaurrean aipatzen da, eta ez artikuluetan. Irizpide horri eusten bazaio eta Espainiako gobernuaren aurreikuspen makroekonomikoak aintzat hartuta, laguntza-programa 2012a bitartean luza liteke. Hain zuzen, Espainiako gobernuak %17,1eko batez besteko langabezia-tasa aurreikusi du 2012. urterako.

### 421 euroak eskatzeko baldintzak

Hainbat baldintza bete behar dira laguntza berriak eskatu ahal izateko. Eskaera egiten duen orok kontuan hartu beharko ditu, bere asmoa betetzea nahi badu:

✓**Errentak.** Hileko 421,79 euroko saria, gehienez 180 egunetan, jaso ahal izango dute hileko 468 eurotik gorako errenta ez dutenek (lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75).

### Krisia piztu zenetik 300.000 autonomok utzi dute beren jarduera Espainiako Estatuan, eta orain arte ez dute langabezia-prestazioa jasotzeko aukerarik izan

Langabetuak gurasoak, senarra edo emaztea, edo 26 urtez azpiko seme-alabak baditu, familiako kide guztien errentak batu eta guztizkoa kide kopuruaz zatituko da. Emaitzak ezin du 468 eurotik gorakoa izan.

✓**Prestazioaren edo sariaren amaiera.** Laguntza jasotzeko aukera izateko ordaindutakoaren arabera langabezia-prestazioa edo langabezia-saria agortu behar da programa indarrean den bitartean. Programa abuztuaren 17an jarri zen abian eta sei hilabete iraupena du –datorren otsailaren 15a arte–. Horrenbestez, diru-laguntza eskura dezakete joan den urtarrilaren 1etik programa amaitu bitartean langabezia-saria galtzen duten guztiek, beti ere gehienez 180 egunetan.

✓**Eskaera epea.** Prestazioa edo saria galtzen dutenek 60 eguneko epea izango dute laguntza eskatzeko. Epea amaituz gero, eskubide hori galduko dute.

✓**Betebeharrak.** Laguntza eskuratzeko duen langabetuak lanean txertatzeko programa batean parte hartu beharko du.

✓**Bateraezintasuna.** Laguntza berria bateraezina da administrazio publikoaren beste gizarite-laguntza, gutxieneko errenta edo gizarite-lansari batzuekin. Hego Euskal Herrian, Lakuako nahiz Nafarroako gobernuak laguntza berriarekin bateraezina diren horrelako zenbait laguntza ematen dituzte. ■



WWW.LAVOZDIGITAL.COM